



## HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

### 2026ko otsailaren 3ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko otsailaren hiruan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

**Presente ziren:** AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Ezin etorriak:** CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki

**Ahalordeak:** DACHAGUER Peio, LEKUMBERRY Xantxori

**Saioko idazkaria:** PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 30aa

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 30a

### **5. ERABAKIA: 2026 URTERAKO, HERRIKO BESTA KOMITEAREKIN PARTAIDETZA HITZARMEN BATEN IZENPETZEA BEHIN BEHINEAN EDARIEN SALDU AHAL IZATEKO**

*(6.1.2 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio urtero partaidetza hitzarmena izenpetzen dela herriko besta komitearekin, herriko besten kariatara gehiegizko alkohol kontsumoei datxizkien arriskuen prebentzioa egiteko. Hitzarmenaren xedapenak betetzen badira, Besta Komiteak goizeko 4ak arte saltzen ahalko ditu edariak.

Auzapezak partaidetza hitzarmen horren izenpetzea proposatu du 2026 urterako.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO,** Auzapezari, herriko Besta Komitearekin 2026rako partaidetza hitzarmenaren izenpetzeko, eta horretarako beharrezkoak diren izapide guztien egiteko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 13 (12 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 13

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko otsailaren 3a

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,  
2026ko otsailaren 5ean argitaratu edo jakinarazi ondotik  
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.